



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2024ko urtarilaren 8koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Azpeitiko 31. Trukutxo hirigintza-eremuko Plan Partzialaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2023ko urriaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak Azpeitiko Udalaren eskaera bat jaso zuen, Azpeitiko 31. Trukutxo hirigintza-eremuaren Plan Partzialaren (aurrerantz, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zezan. Eskaera Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen aplikazio-esparruan egin da.

Honako dokumentu hauek erantsi zaizkio eskaerari: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak) V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea gauzatu du (2023ko azaroaren 17an hasita), halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientearen dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Azpeitiko Udalari.

Halaber, espedientearen jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren gainean interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Indarreko legerian ezartzen den txostenak jasotzeko epea bukatu zenean, eta jasotako txostenak aztertu ondoren, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazuela behar beste datu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izateko arriskua dakartenean; horretarako, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publikoek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketei ere, legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 8. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasteko eskaerari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiaren gainekoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren gainekoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Ingurumen-ondorioetarako soilik, Azpeitiko 31. Trukutxo hirigintza-eremuaren Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Azpeitiko udalerriaren iparraldean kokatzen den «31. Eremua. Trukutxo» eremuak 259.786 m²-ko azalera du. Lasao inguruan dago, Urola ibaiaren bi ertzetan garatzen diren Anardi eta Badiologiko jarduera ekonomikoek okupatzen duten hiri-continuumean.

Plana Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko LPParen 1. aldaketa garatzeko egin da, zeina Trukutxo eta Amue eremuei baitagokie. Azpeitiko HAPOk (2013-09-17an behin betiko onartua) «31. Trukutxo» hirigintza-eremua mugatu, eta egiturazko hirigintza-antolamenduko araubidea zehazten du; Plan Partzial bat egitea aurreikusten du, bere antolamendu-araubide xehea zehazteko.

Eremuko lursail gehienak Hierros Servando SL enpresarenak dira. Gainerakoak titulartasun publikokoak dira: eremuaren barruan dauden ibai-ibilguetako tartekak (jabari publiko hidraulikoa), GI-631 foru-errepidea (bideen jabari publikoa) eta trenbidea (trenbideen jabari publikoa).

Planaren helburua da Azpeitiko hirigunean dagoen Corrugados Azpeitia enpresaren instalazioak Amue eremutik mugitzea (txatarra biltegitratzea, galdaketa eta instalazio osagarriak). Era berean, Amue eremua berreskuratzen da, industria erabilerako lurzoru bat nagusiki bizitegi erabilerarako lurzoru bihurtuz.

Eremua mugatzen da, Ugalditzako ibarbidean ahalik eta inpaktu txikiena izan dezan, eta komunikazio-bideen trazadurak antolatzen dira (errepideak, bide-gorriak eta trenbideak). Halaber, Plana egokitu egiten da ibai-ibilguak eta horien ertzak tratatzeko irizpideekin, ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LAParekin eta Zarautz-Azpeitiko eremu funtzionaleko LPPan ezarritakoarekin.

Zonifikazio xeheak honako ezaugarri hauek ditu:

- Ibaiaren gaineko zubian eta pasabidean eta trenbidearen tunelean erabilerak gainjartzen direnez, bi mailatako kalifikazioa bereizten da: goiko maila (zubiak-plataforma industrialak) eta beheko maila (ibaia-tunela).
- Plan Orokorrean definitutako bideen, trenbideen eta ibai-ibilguen sistema orokorreari eusten zaie, eta azpigune gisa kalifikatzen dira: «e.10 Errepideak eta herri barruko bideak», «e.30 Trenbide-sarea» eta «h.10 Ibai-ibilguak».
- «E.20» gune osoa azpigune xehetan banatzen da: «e.10 Errepideak eta herri barruko bideak», «e.20 Ibilbide Berezien Sarea. Oinezkoak/Bide-gorriak» eta «f.20 Espazio libre komunak».
- Guztira 28.337 m²-ko azalerako hiri-espazio libreak antolatzen dira, zeinak ibaiaren bi ertzetako bi azpiguneetara mugatzen baitira. Ibaiertzeko espazio horiek pasealeku gisa erabiltzen dira (Anardiko industriadetik), are oinezkoen eta bide-gorriak daudelako ere (Badiologiko eremutik datoz).
- Eremuaren gainerakoa «b.10. Industrialak» azpigunean sartzen da. Industria-erabilerarako 56.691,25 m²(t) antolatuko dira guztira, eta, enpresaren beharren arabera, «b.10» lurzati industrialean kokatuko da (198.312 m²-ko azalera du).

Alternatibei dagokienez, ingurumen-dokumentuak hiru aztertzen ditu:

- 1. alternatiba eremuaren jatorrizko egoerara itzultzean datza, bertan egin diren esku-hartzeen aurrekora.
- 2. alternatibak eremuaren egungo ezaugarriari eusten die, bakarra ere aldatu gabe.
- 3. alternatibak Azpeitiko HAPOn aurreikuspenak garatzen ditu, eta eremuan aurreikusitako industria erabilerara bideratutako hirigintza-garapena ahalbidetzen du.

3. alternatibaren alde egin da; izan ere, Plan Orokorrearen aurreikuspenak garatzen ditu, LAGek lurzoru industrialak sortzeari eta udalerrak eremu honetarako dituen irizpideei eta itzaropenei dagokienez ezarritako zehaztapenei erantzunez, eta Amueko eremua bizitegi-erabilerakoa izan dadin birmoldatzen lagunduz.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira 211/2012 Dekretuan zehaztutako irizpideak (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren Legean (10/2021, abenduaren 9koa) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko Legean (9/2021, azaroaren 25koa) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Halaber, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzen babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- e) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Paisaiak eta kultur-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- h) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Hauek sustatzea: energia aurrezteak, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-alaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta alaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Natura-arriskuak minimizatzea.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-eremu garrantzitsuak

«31. Trukutxo» eremuak 259.786 m²-ko azalera du, eta Azpeitiko udalerriaren iparraldean dago, Lasao inguruan, eta Anardi eta Badiologiko jarduera ekonomikoek okupatzen duten hiri-continuumean kokatzen da, Urola ibaiaren bi ertzetan.

Urola ibaiak meandro itxurako ibilbidea du. Trukutxo inguruan Badiologiko meandroa nabarmentzen da. Ugalditza errekek ere zeharkatzen du (Urolaren ibaiadarra).

Urola bailaran kokatzen da, Anatzanen behe-hegalean, eta topografia nahiko leuna da haraneko guneeetan (% 3 baino gutxiagoko maldak). Salbuespen bakarra ekialdeen dagoen eremua da, non % 50 baino gehiagoko maldak baitaude gune askotan.

Azpeitiko HAPOk lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen ditu eremuko lursailak. Gaur egun, Trukutxo inguruan dauden hiri-erabilerak industrialak dira (Anardi eta Badiologi), eta inguruko lurraldearen gainerakoan erabilerak lehen sektorerara bideratzen dira: abeltzaintzara eta basogintzara.

GI-631 errepidearen eta Urola ibaiaren artean dauden eremuko lursail batzuk oso aldatuta daude urbanizazio- eta eraikuntza-jarduketan ondorioz, dagoeneko eginda dauden lur-betelaneekin eta abarrekin batera.

Eremuko landaredi potentziala haltzadi kantaurreak eta hariztiak dira (harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa). Egun Urolaren ibaiertzean dagoen landaredia urria da oso, iraganean zegoenaren aldean. Landaredi horri dagokionez, haltzez gain (*Alnus glutinosa*), platanoak daude (*Platanus hybrida*) eta, neurri apalagoan, lizarrak (*Fraxinus excelsior*). Batasunaren intereseko ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarren 91E0* habitata ohikoagoa da meandroko landaredi-masa txikiengan, zeinak etenak baitira tarteka, eta

hobekien kontserbatzen den azpitartea hegoaldeko muturrean dago. Azken tarte horretan, haritz-ale ederrekin (*Quercus robur*) tartekatzen da. Ugalditzako errekararen beheko tartean ere badago, bai eta pinu-landaketaren ondoko bide-ertzeko guneko oso zehatzetan eta HUAtik gertu dagoen platanoen zuhaitzian ere. Meandroaren ezkerraldeko tarte batean ez dago zuhaitzik.

Eremu horretan, honako hauek nabarmentzen dira: pinu-landaketak, belardi-laboreak, landaredi erruderal-nitrofiloa eta, neurri apalagoan, ibaiertzeko landaredia, zuhaitzi hostoerorkor mistoa eta platanoen nahiz lizarren landaketak. Belardiak eta laboreak bigarren landare-formazio garrantzitsuena dira, duten hedaduragatik.

Faunari dagokionez, bertan egon daitezkeen espezieak orokorrean aurki daitezkeen eta giza inpaktuekiko tolerantetaren diren espezieak dira, eta Gipuzkoan, ohikoak izateaz gain, asko daude. Faunari dagokionez, interes handieneko eremuak ibaiak eta ibaiertzak dira. Ingurumen-dokumentuaren arabera, Anardi industriadetik gertu dagoen Urola ibaiaren bideratutako tartean, uhalde enarek habia egiteko eremu bat dago (*Riparia riparia*). Espezie hori kaltebera gisa dago katalogatuta Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan. Era berean, adierazten du litekeena dela Urolako tarte horretan martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) egotea, interes bereziko espezieetat jotzen dena.

Eremua ez dago ez eremu babestuan barruan, ez natura-intereseko eremu inbentariatu baten barruan, kategoria gorabehera: parke naturala, biotopo babestua, zuhaitz apartekoa, Natura 2000 Sareko (BGL) gunea edo lekua, KBE, BBE, ibai-erreserba naturalak, etab. Ez da EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen parte.

Halaber, eremuaren zati txiki bat hidrogeologia-intereseko guneko batean dago. Ez dirudi hiri-horniduren ur-harguneei eragin zaienik.

Eragin akustikoari buruzko azterketaren arabera, ez da gairatzen eremuko kalitate akustikoko helbururik (KAH); errepideko fokua da zarata-maila handiena ematen duena, baina ez da KAHetan ezarritako mailak gairatzen iristen. Etorbizuneko eraikinak egokitu egin beharko dira akustikaren arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakora. Horrez gain, ingurumen-dokumentuak proposatzen du zarata 10 dB(A)-an ere apaltzeko ahalmena izango duen pantaila akustiko bat jartzea GI-631 errepidearen bihurtzearen kanpoaldean.

1997-IX-23ko ebazpenaren bidez (1997-X-13ko EHAA, 195. zk.), Badiolegi baserria balizko arkeologia guneko izendatu zen, babes-tipologia honekin: «A motakoak: eraikinaren hormez barruko esparrua». Gaur egun, Badiolegi baserria existitzen ez bada ere, balizko arkeologia guneari izendapen horrek indarrean jarraitzen du. Hori dela eta, planteatutako hirigintza-garapena arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako irizpideetara egokitu beharko da.

Ingurumen-arrisku posibleei dagokienez, eremuak 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen arriskua du; sektorean, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako hiru lurzati identifikatzen dira; higadura-maila txikiko, lurzoru-galera onargarriko eta higadura garbirik gabeko eremu batean kokatuta dago; eta akuiferoak kutsatzeko arrisku txikia edo oso txikia du.

Trukutxo eta bere ingurunea landa-ingurune ingurumen-unitate batean daude. Unitate horren ezaugarri nagusia baso-eremuak (pinuenak, nagusiki) eta belardi-laboreak dira, zeinak garapen urbano-industrialekin osatzen baitira.

Ez da hauteman bateraezintasunik hierarkian gorago dagoen plangintzarekin.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak. Baldintzatzaileak, ingurumen-araudian oinarrituta.

Planaren xede den eremuan ez da hauteman jarduketak kokatzeko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: sistema hidrologikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; uholde-arriskua; naturaren, landarediaren eta intereseko faunaren kontserbazioa; espezie aloktono inbaditzaileak; kultura-ondarea, eta kutsadura akustikoa.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren erantzunak jaso dira.

Segidan, jasotako txostenetan adierazitako gairik nabarmenenak laburtuta daude:

Kultura-ondareari dagokionez

Eremuan, trenbideari dagozkion ondare arkitektonikoko elementu hauek daude: 96. Hemezortzigarren zubia, 190. Hogeita bigarren tunela, 195. Trenbidearen trazadura. Hirurek babes ertaineko proposamena dute Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroaren datu-basean. Lur-berdinketa eta trenbidearen elementuak mantentzea gomendatzen da. Planak elementu horiek mantentzea jasotzen du.

27. elementua. Badiolegi baserria balizko arkeologia gunea da (1997-X-13ko EHAA, 195. zk.). Baserria eraitsia izan da, baina kokatuta zegoen gunearen izendapenak bere horretan dirau. Balizko arkeologia gunean eragina duten esku-hartzeen kasuan, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikulua aplikatu beharko da.

Kutsatutako lurzoruei dagokienez

Ihoberen txostenak adierazten du lurzoru kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten lurzatiak daudela, zehazki, 20018-00160 eta 20018-00105 kodeak dituzten lurzatiak. Izan ere, hainbat motatako hondakinen isurketak jasan dituzte, bai eta energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa ere, hurrenez hurren. Halaber, 20018-00160 lurzatian jarduketak egin dira, CORRUGADOS AZPEITIA-MEANDRO LASAIO izeneko espedientearen esparruan (SC-83/08-EG), eta lurzoruaren kalitatearen adierazpenarekin burutu da.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoaren arabera, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarrien zehaztapena

2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

3. Ingurumen-efektuak

4. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.

5. Ingurumena zaintzeko programa

6. Ingurumen-laburpena

7. Laburpen ez teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia honako atal hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. atalean jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, bai eta Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gainetik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren edo ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, Espainiakoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako araudia eta plan hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala.

- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezartze aldera.

c. Ingurumenean eragina izateko arriskua dakarten Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta natura-baliabideen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, garapen-tresna edo -proiektu horiei ingurumen-ebaluazioa egin dakiekeela aurreikusi beharko da.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko atalean azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera eta Planean ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua dakarten aurreikuspen eta jarduketak adierazi beharko dira. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez honako hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoak, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, natura-baliabideen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba –esku ez hartzeko aukera– ere hartuko da kontuan, erreferentziatutako haxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b atalean deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c atalean deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den egungo ingurumen-egoera –alderdi nagusiak azalduta– planaren afekzio-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eragin-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, Planaren ekintzek ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzaketen gunetara mugatuta.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, arriskupeko fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, geologia-intereseko lekuak, korridore ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

c. Paisaia. Pertzepzio-ikuspuntutik intereseko elementurik dagoen aztertuko da.

Eremuaren eta ingurunearen ezaugarri eta baldintzatzaile orokorren ondorioz, harrera egiteko gai den eta hauskortasun ertaineko lurralde bilakatzen dute. Hauskortasun horrek modu berezian eragiten dio Anatzanen hegalaria, eta, ondorioz, aurreikusitako garapena gauzatzeak berekin dakar paisaiaren integrazioarako neurriak zehaztea.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuez jaso ahal izan den datu oro emango da, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kutsatzearekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Balizko kutsadura iturriak eta balizko jardura kutsatzaileak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

Industria-garapena Anatzanen mendi-hegalera hedatzeko, lurrak mugitu eta lur-berdinketak egin behar dira, pabiloi berriak, bideak eta abar jartzeko. Orografia eta maldak kontuan hartuta, Anatzanen mendi-hegalak ezegonkortasun-arrisku potentzialak ditu.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesak ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da.

f. Atal honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira; hala nola, mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), biztanleguneak (halakorik bada), ukituta gerta daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta laburki jasoko da zein diren Planeko-jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Atal hau idazteko, ebazpen honen 3. atalean aipatu diren ingurumen-eremu garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu dezakete honako hauekin lotutako alderdiek: landare-estalkiaren galera, jabari publiko hidraulikoaren babesak, kultura-ondarea, paisaia eta Anatzanen hegalararen higadura-arriskua; hortaz, Azterketan aztertuko dira alderdi horiek.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Atal honetan, identifikatu eta aztertuko da zer ondorio izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek 6.2 atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek berezita: nahi ez diren ondorioak, metaketakoak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c atalean identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da atal horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Horrela deskribatutako Planaren ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, ondorioa aipatu behar bada ere.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Indusketen eta lur-mugimenduen ondorioak, eta obraren material-soberakinak sortzearen ondorioak.
- Jarduketak bereziki zaindu beharko du Urolaren eta Ugalditzaren ibilguei eta hegala horietatik gertuen dauden pabiloi industrialei istripuz ez eragitea, mendi-hegalaren ezegonkortasun-arriskuak direla medio.
- Espezie aloktono inbaditzaileak barreiatzeko arriskua aztertuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak (KAH).
- Bereziki, Urola eta Ugalditza ibaietan izan dezakeen eragina eta jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremuaren gaineko eragina ebaluatuko dira, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Bereziki, beharrezkoa izango da EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean aurreikositako jarduketek ubide-atzeratzei buruz adierazten dutena betetzea.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez; halaber, aztertuko da Plana Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean jasotakoarekin bat datorren.
- Ustiapen-fasean, inpaktu nagusiak industria-jarduera handitzearen ondorio izango direla pentsatzen da, eta horrek hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa handitzea ekarriko du, bai eta eragindako mugikortasuna eta soinu-mailak handitzea ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak ere aztertuko ditu inpaktu horiek.
- Plana eta eremuaren inguruan dauden kultura-intereseko elementuen kontserbazio-irizpideak bateragarriak diren aztertuko da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailak egindako txostenean adierazitakoaren arabera.

b. Identifikatu eta kodetutako efektu bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruen kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaildi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, Planean aurreikositako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, saiatuko da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen.

d. Adieraziko da hautemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Atal honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3 atalean deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu handirik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu obren fasean ingurune hidrikoa babesteko neurriak, lurrazaleko uren kalitatea murriztea saihesteko.
- Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren espazio libreetako eremuak landareztatzea xedatuko da, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta. Ihobek argitaratutako *Lortegi eta berdegune jasangarriak diseinatzeo eskuliburua* aintzat hartzea gomendatzen da.
- Planaren eremuan egon daitezkeen flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatzeko jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira, eta eremuan eta ingurunean ez hedatzeko neurri egokiak hartuko dira.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu zenbait neurri, Planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, ihobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua*. *Udalsarea 21eko lan-koaderno* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta berariaz zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeo diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta adieraziko da zein den horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 atalean ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da ea zer nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat, zeinak ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko baitu.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez, gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du, gutxienez, Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
- Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritza Nagusia, Basafauna eta Basafloraren Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzkizaleak Elkartea (Eguzki).
- «Haritzalde» Parkeen Lagunak elkarte naturalista.
- Áncora elkarte.
- Itsas Enara Ornitologi Elkartea.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta azterketa hori irismen-dokumentura nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentua_k-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrenen.- Azpeitiko Udalarik ebazpen hau jakinaraztea.

Hirugarrenen.- Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 8a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
Javier Aguirre Orcajo

